PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ARAUTUKO DUENA BERTAKO PRODUKTUAREN EGUNEKO AZOKARAKO ZAINTZA ETA SEGURTASUN ZERBITZUEN KONTRAZIORAKO LIZITAZIOA.

1. ZERBITZUAREN OINARRIZKO BALDINTZAK

Kontratuaren xedea Donostiako Tokiko Produktuaren Eguneko Azoka osatzen duten espazioetan instalatutako elementuen zaintza eta segurtasun zerbitzuak ematea da.

2. SARRERA

Donostiako Udalak, Donostia Sustapena, S.A. sozietatearen bidez (aurrerantzean SUSTAPENA) hiriko Tokiko Produktuaren eguna antolatzen du, tokiko produktua bultzatu eta ikusarazteko xedez, herritarrak haren kontsumoan sentsibilizatzeko baliagarri izan dadin eta, modu horretan, salmentak indartu eta nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasuna areagotzeko.

Tokiko Produktuaren Eguna antolatzeak, beste jarduera batzuen artean, bi egunez (ostirala eta larunbata), ziurrenik azaroan, Boulevardean Tokiko Produktuaren Azoka bat antolatu eta ospatzea eskatzen du, presentziazko formatuan.

Aipatutako jarduera betetzen dela ziurtatzeko, derrigorrezkoa da Donostiako Tokiko Produktuaren Eguneko Azoka osatzen duten espazioetan instalatutako elementuen zaintza eta segurtasun zerbitzu bat izatea.

3. ZERBITZUAREN HELBURUAK:

Enpresa esleipendunak eskaini beharreko zerbitzuaren helburuak hauek dira:

1. Delitu ekintzak edo arau hauste administratiboak saihestea Bertako Produktuaren Eguneko Azokak hartuko dituen guneetan.

2. Azokan ezartzen diren ondasun materialen egoera zaintzea, hondatu ditzaketen delitu jarduketak ekidinez.

3. Pertsonen segurtasuna zaintzea, Azokara joatea sustatuko duten segurtasun eta konfiantza giroa sortzeko.

4. Ekitaldia burutzeko hesitu eta seinaleztatutako espazioak errespeta daitezela, horretarako lizentzia, ibi eta seinaleztapenak izanik

Segurtasun zerbitzu pribatuak hiriaren ohiko zerbitzu publikoak osatuko ditu.

Hori guztia kontuan izanda, enpresa esleipendunak eskaini beharko dituen zerbitzuak hauek

izango dira:

- Armarik gabeko, behar bezala uniformatutako eta identifikatutako segurtasun zaindariek **zaintza txandak** egitea, baita zerbitzua garatzeko komunikabide egokiak izatea ere, une oro betez segurtasun arloko araudiak ezartzen dituen betekizunak.

4. ZERBITZURAKO GUNEAK

Honakoa izango da zerbitzua emateko aurreikusten den eremua:

- Donostiako Boulevard Zumardia (kioskoaren alboko eremua, Tokiko Produktuaren Egunari dagozkion elementuz hornituta)
- Paseo Berria (zedarriztatutako aparkaleku-eremu zehatza, gutxi gorabehera 150 metrokoa, seinaleztatua eta horretarako beharrezkoak diren baimenekin, onetsitako ibiarekin bat etorriz, Aldamar kaletik hurbilen dagoen eremua izango dena).

Donostia Sustapenak beretzat gordetzen du Bertako Produktuaren Azokako guneak aldatzeko eskubidea, betiere horrek ez badu esan nahi ordutegi dedikazio handiagoa eskaini beharra eta hiriaren erdigunean badaude.

Donostia Sustapenak zerbitzuaren enpresa esleipenduna behin betiko guneei buruz informatuko du **zerbitzua abiarazteko hasierako bileran**, aurrerago adierazten den bezala.

5. ZAINDU BEHARREKO ELEMENTUAK ETA JARDUERAK

Jarraian, Tokiko Produktuaren Eguneko Azokan ziurrenik instalatuko diren elementu ezberdinen zerrenda bat ematen da, horien kokapenarekin batera, erreferentzia gisa:

- **Donostiako Boulevard Zumardia:** Tokiko Produktuaren Eguneko Azokako azoka Donostiako Boulevard Zumardian kokatutako 300 metro koadroko karpa batean garatuko da, kioskoaren aldamenean. Haren azpian 30 postu inguru ipiniko dira, egunean zehar tokiko produktuak eskainiko dituztenak. Gainera, karpara erantsita, bi haima txiki ipiniko dira, tokiko produktua sustatzeko.

  Hiru gune horien gainean zaintza gauez egingo da, bertara pertsonak sar ez daitezen eta lapurretan eta ekintza bandalikoak ekiditeko.

- **Paseo Berria (aparkalekuaren eremua):** Tokiko Produktuaren Eguneko Azokan parte hartuko duten ekoizleen autoak aparkatzeko gordetako eremuaren (hesitua) zaintza. Aipatu eremu hori, onetsitako ibiarekin bat etorriz, 150 metroko luzera duen Aldamar kaletik ahalik eta gertuen kokatuko da. Sustapenak baimendu gabeko autoak (behar bezala identifikatuta) ezingo dira aparkatu, eremua hutsik mantenduz.

  Zaintzaileak aparkatzen saiatzen diren gidariei gogorarazi beharko die eremu horretan

ezin dutela egin. Hala ohartarazi arren, aparkatu egiten badute, zaintzaileak ibilgailu bat aparkatuta dagoela jakinarazi beharko dio Udaltzaingoari eta hura bertatik kentzeko eskatu. Halaber, jarraipena egin beharko du Udaltzaingoak eremu horretan aparkatutako ibilgailua kendu bitartean.

Kontratuaren xedea eskaintzen hastean, Sustapenak behin betiko elementuak baieztatuko ditu, baita horien kokapena ere, enpresa esleipendunak zerbitzua zuzen kudeatzeko.

6. ZAINTZAREN EGUTEGIA

Kontratazio honen xede den zerbitzua 2021. eta 2022. urteetako Tokiko Produktuaren Eguneko edizioetan burutzea eskatzen da eta, hala badagokio, 2023. urtean. Zehazki, 5ean eta 6an egingo den 2021. urteko edizioari begira, zerbitzua emateko data zehatza azaroaren 4-6 bitartekoa da, eta hauek dira eskatzen diren ordutegiak:

- Boulevardeko Zumardian eta bi txandatan: 2021eko azaroaren 4ko 18:00tatik aurrera 2021eko azaroaren 5eko 09:00ak arte; eta 2021eko azaroaren 5eko 20:00tatik aurrera 2021eko azaroaren 6ko goizeko 09:00ak arte.

- Paseo Berrian (aparkalekurako gordetako eremua) eta bi txandatan; 2021eko azaroaren 4ko 20:00tatik aurrera 2021eko azaroaren 5eko 10:00ak arte; eta 2021eko azaroaren 5eko 20:00tatik 2021eko azaroaren 6ko goizeko 10:00ak arte.

Aurreragoko edizioei begira, Sustapenak hilabete lehenago jakinaraziko ditu Tokiko Produktuaren Eguneko Azoka egiteko data zehatzak, edizio horietarako zerbitzurako premia zehatzekin batera.

7. INFORMAZIOA EMATEA DONOSTIA SUSTAPENARI ETA GORABEHEREN KUDEAKETA

Zerbitzua eskaintzean, enpresa esleipendunak informazio parte bat egingo du egunero, eta bertan jasoko dira gorabeherak, halakorik balego, baita horietarako irtenbideak ere.

Era berean, Sustapenak enpresa esleipendunari jakinaraziko dizkio konpondu beharreko gorabehera guztiak, eta berehala konpondu beharko dira edo kontuan hartu beharko dira.

Horretarako, esleitutako langileek telefono mugikorra izateaz gain, Sustapenarekin bide hori erabiliz edo pertsona solaskidearen bidez berehala komunikatzeko prestutasuna izan beharko dute.

Enpresa esleipendunak ordubetetik (1) beherako epean arreta eman beharko die Donostia Sustapenak jakinarazitako gorabeherei, eta horien kontrola eramango du eta horien kudeaketaren zein konponbidearen txosten bat entregatuko du unean-unean.

Kontratuaren xedea amaitzen denean, egindako zerbitzuari buruzko laburpen bat, gorabeheren kudeaketa eta horien konponbidea jasotzen dituen txosten bat emango dio enpresa esleipendunak Sustapenari. Txosten hori kontratazio honen xede den zerbitzua amaitu eta 2 eguneko gehieneko epean entregatuko da.

8. ZERBITZUA ARTIKULATZEA

Aurreko guztiarekin bat etorriz, kontratazio honen xede den Zerbitzua Ematen hastean, Sustapenak **Zerbitzua Abiarazteko Bilkura** bat egingo du. Bertan enpresa esleipendunarekin dagokion urteko zerbitzua emateko behin betiko datak zehaztuko dira, kokapenekin eta edizio horretan instalatzeko elementuekin batera.

Bilkura horretan, gainera, bi aldeek beren solaskide izango diren pertsonak aurkeztuko dituzte, enpresa esleipendunaren aldetik proposatutako edozein gorabehera berehala ebazteko komunikatzeko bitarteko edo bide zehatzekin batera.

Zehazki, 2021. urteari dagokion zerbitzua ematean, Zerbitzua Abiarazteko Bilkura kontratua sinatu eta berehala egingo da eta Zerbitzua emateko datak, aldez aurretik deskribatutakoarekin bat etorriz, azaroaren 4 eta 6 bitartekoak izango dira. Aurreragoko edizioetarako, Zerbitzua Abiarazteko Bilkura eta, horrenbestez, data zehatzen jakinarazpena (edizioarekin lotutako bestelako xehetasunekin batera), gutxienez hilabete lehenago egingo da.

Bilkura horretan, gainera, informazio horren ondorik plantea daitekeen beste edozein xehetasun zehaztuko da.

Bilkuraren ondoren eta bilkuran bi aldeen artean adostutako epean, enpresa esleipendunak Sustapenari egutegi bat proposatu beharko dio. Bertan zehaztuko dira ibilbideak Donostia Sustapenak helarazitako informazioaren arabera. Horrez gain, esleitutako langileak adieraziko dira, enpresa esleipendunak interesgarritzat jotzen duen beste edozein xehetasunekin batera.

Donostian, 2021eko irailaren 20an,

Digitalki sinatuta norengandik: MARIA SOLEDAD GARMENDIA BELOQUI - 15968224Z
Data: 2021.09.22 10:10:57 +02'00'

Marisol Garmendia Beloqui
Donostia Sustapena S.A.ko presidenteordea